

# delikatuz

Elikadura eta Gastronomía Gunea  
Goierriko Interpretazio Zentroa

# ! IDIAZABAL TURISMO



*Ibilbide  
turistikoak  
Idiazabal  
Lurraldean*

D'elikatuz - ORDIZIA - Tel.: 943 882 290  
[www.delikatuz.com](http://www.delikatuz.com) - [delikatuz@ordizia.eus](mailto:delikatuz@ordizia.eus)

Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa - IDIAZABAL - Tel.: 943 188 203  
[www.idiazabalturismo.com](http://www.idiazabalturismo.com) - [info@idiazabalturismo.com](mailto:info@idiazabalturismo.com)



Ordiziako Udala



EUSKADI  
BASQUE COUNTRY



# Gutxienez 20 pertsonaz osatutako taldeentzako ibilbideak



## 1- Ordiziako Azokaren eta bere produktuen ibilbidea.

### Asteazkenetan egiteko ibilbidea

**10:00** Ordiziara iritsi. Gidaren aurkezpena eta taldearen harrera.

**10:30-11:00** Gastronomía Interpretazio Zentroaren bisita gidatua. Ordiziako azokaren sorrera eta bilakaera ezagutzeko ikusentzunezkoa.

Ondoren denbora librea azoka ezagutzeko: saltzen diren produktuak, ezaugarriak, kokapena... Plaza Nagusian kokatuta dagoen emakume baserritarraren omenez egindako eskultura ikusi ahalko da.

**12:30-13:30** D'elikatuz Zentrora itzuli eta beste bi solairuak ikusiko ditugu: Goierriko Interpretazio zentroa eta Elikadura eta Nutrizioaren Interpretazio Zentroak.

**13:30-14:30** Goiza osatzeko Ordiziako kasko historikoaren bisita gidatua egingo dugu.

**14:30** Bazkaria (Menuak begiratu)

**17:00 - 18:30** Irteera Idiazabal herrira eta Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroaren bisita gidatua egingo da. Idiazabal Gazta Ordiziako azokako produktu garrantzitsuenetako bat da, betidanik izan delako ohiko salmenta tokia. Bisitan Idiazabal gazta eta ardo dastaketa bat egiten da.

Ondoren Idiazabal herrian denbora librea herriko beste toki interesgarriak ezagutzeko: Txomenane Parkea, artzaiaren eskultura, indianoen etxeak...

**19:00** Bisitaren amaiera.

**Prezioa pertsonako: 35 Euro\***



## 2- Goierri Erdi Aroan

**10:00** Segurara iritsi. Taldearen harrera eta denbora librea kafe bat hartzeko bisitak hasi aurretik.

**10:15-11:45** Erdi Aroko Interpretazio Zentroaren bisita gidatua. Ondoren kasko historikoaren bisita gidatua. Bisitan Jasokundearen Ama Birginaren eliza ikusten da.

**12:00** Beasaina iritsi. Igartza Erdi Aroko gune arkitektonikoaren bisita gidatua. Bertan aipatzekoak dira: jauregia, burdinola, errota, zubia,..

**14:00** Bazkaria (Menuak begiratu)

**16:30-18:00** D'elikatuz Zentroaren bisita gidatua, Ordiziako historia eta azokaren ezaugarriak ezagutzeko. Ondoren kasko historikoaren bisita gidatua, Ordiziako eraikuntzarik garrantzitsuenak ezagutzeko: Udaletxea, Plaza Nagusia, Jasokundeko Andre Mariaren eliza, Abaria jauregia, Barrena jauregia, Zabala jauregia, Andres Urdanetaren eskultura,...

**19:00** Bisitaren amaiera

**Prezioa pertsonako: 35 Euro\***

### 3- Idiazabal Gaztaren ibilbidea

10:00 Idiazabal herrira iritsi. Denbora librea kafe bat hartzeko bisitak hasi aurretik.

10:30-12:30 Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa bisita gidatua. Bertan hain famatua den gazta honen ezaugarriak ezagutuko ditugu. Ondoren gazta dastaketa.

Zentroa bisitatu ondoren Ondramuño baserrira abiatuko gara, Idiazabal Jatorri-izendapeneko gaztarik onenak egiteko erabiltzen duten prozedura bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugularik.

Goiza osatzeko Idiazabal herria ezagutuko dugu: Eliza, Txomenane parkea,...

14:30 Bazkaria (Menuak begiratu)

16:30-18:00 Ordiziako D'elikatuz Zentroaren bisita gidatua. Bertan Goierriko Interpretazio Zentroa eta Elikadura, Nutrizio eta Gastronomía guneak kokatzen dira. Ondoren denbora librea Ordizian.

19:00 Bisitaren amaiera

**Prezioa pertsonako: 35 Euro\***

### 4- Sagardoa eta Idiazabal Gaztaren ibilbidea

10:00 - 11:30 Astigarragako Sagardoetxearen bisita gidatua. Zentro honek sagarra eta sagardoaren historia azaltzen digu.

Ondoren Idiazabal herrira joango gara Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa ikustera. Gazta dastaketa egingo da.

14:00 Bazkaria Tximista Sagardotegian: Bakailao tortilla/ Bakailao takoak piparrakin/ Txuleta/ Idiazabal Gazta/ Sagardoa/ Kafea barne

16:30-18:00 Ordiziako D'elikatuz Zentroaren bisita gidatua. Bertan Elikadura, Nutrizio eta Gastronomía guneak kokatzen dira.

19:00 Bisitaren amaiera.

**Prezioa pertsonako: 39 Euro**

Prezioan sartzen diren zerbitzuak: D'elikatuz Zentroko bisita gidatua, Sagardoetxeako bisita gidatua, Idiazabal Gaztaren Zentroko bisita gidatua, gazta eta sagardo dastaketak eta bazkaria (Sagardotegiko menua).

### 5- Ibilbide Gastronomikoa Euskadiko bihotzean

Ibilbide honetan Ordiziako eta Tolosako azokak bisitatzen dira (Asteazkenak Ordizian eta larunbatak Tolosan).

Ibilbidean ere Ordiziako D'elikatuz Zentroa, Tolosako Topic Museoa eta Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentroa ikusten dira. Gazta dastaketa egiten da.

Menuak: Kontsultatu

**Prezioa pertsonako: Asteazkenetan: 26 Euro. Larunbatetan: 28 Euro.**

\* Prezioan (BEZ barne) sartzen diren zerbitzuak:-Museo eta Interpretazio zentruetako sarrerak -Bazkaria -Gida zerbitzua egun osoan zehar \* Garraioa ez da prezioan sartzen

# Gutxienez 10 pertsonaz osatutako taldeentzako zerbitzuak



## 1- D'elikatuz Zentrora bisita gidatua

Goierriko Interpretazio Zentroa eta Elikadura eta Gastronomia guneak ezagutuko dira gida baten laguntzaz.

Iraupena: ordu t'erdi

Tarifa: 3,20 €/pertsonako



## 2- Erdi Aroko kasko historikoaren bisita gidatua

Iraupena: ordu t'erdi

Tarifa: 75 €/taldeko



## 3- D'elikatuz Zentrora bisita gidatua + Erdi Aroko kasko historikoaren bisita gidatua

Iraupena: 2 ordu t'erdi

Tarifa: 3,20 €/pertsonako + 75 €/taldeko

Prezioak BEZa barne